

# — EXPEDICIÓN —

## PUMORI: hainbat pasadizu eta oroitzapen

FELIX IÑURRATEGI

**P**OLTSEZ gainezka genekarren gurditxoak azkenengo ate problematikoa pasatu nahi zuen behingoz. «¿Algo para declarar?». Gurea berriz ongi kostata sinesteko erantzuna, baina kontrakorik ezean, segi bada!

Arnasa bere onera zetorren hartan, lau aurpegi ezagun antzeman nituen lagun bibotedunaren bestaldean. Lehendabiziko irriak, keinu xebreak, bostekoa, besarkada edo antzeko bat edo beste, «ta... zer moduz?», «bizi al zarete?», «ya os vale...»...

Nepaletik gentozen, gure azainatxoa (Pumori) egin eta esperientzia ikaragarri aberatsa bizi izanaren sentsazioarekin eta zirkotik datorren haurra bezain pozik eta kontalari gainera, bidai luze luzea egin eta mendi haundi haundiak ikusi bait genituen. Baina gure lagunak ez zeuden besterik gabe gelditzekotan eta autoan, aurreneko kilometroetan aurrera, zeri heldu ez banekien ere une hartan oraindik hain hurbil sentitzen nituen joandako egun haien gorabeheretan galdu nintzen solasean.

**B**ADA, espedizio denak edo gehienak bezala bai behinik behin, mendi aldera mugitu ginen tramankulu guztiak han eta hemen gorde, sartu, lotu edo zintzilikatu eta 15 zamalariren bizkar utzirik. Erabat berriak zitzaizkigun egoera eta eginbehar haiek, hasieran zirra hotz edo arrotz izanaren beldurra sortu zuten gudan. Sirdarra, sukaldaria eta honen laguntzailea eta 15 zamalari haiek guk montatutako historia hartan ikusi eta eskapadarik egin ez genezan ofizial gizarajo bat zerbait izan ustean gure pausoen segidan, ez ziren bizitzen ohi-tuak geunden eszenak.

Irailaren lehenengo hamabostaldia zen eta eguna joan eta eguna etorri poliki poliki gindoazen hibai batetik bestera eta lepo batetik hurrengora, begiak eta burua ingurura begira ez asko eta aldioro han gorago joaten zitzaizkigularik. Monzoi garaiko odei beltz haiek mendiak gordetzen bazizkiguten ere, noizbehinka goizaldeko edo ilunabarreko eguzkiaren isladak pizten zituen ostarte bat edo bestetan eta orduan eta areago sentitzen genuen gora joateko grina. Bidea ikaragarri txukuna eta bitxia zen, ezin politagoa, baina lehen bait lehen izan nahi genuen kanpamendua prest eta goialdeko martxa hartua. Gure bizkor joan nahiagatik ere 13 egun pasa ziren Khumbu glaziarearen bazter hartan asentatu arte.

## Khumbu glaziarean


Eguzki islada eta glaziare bazter artean bazirudien erromantiko jartzen ari nintzela; «eta mendia zer?» batek, burua astindu eta kontakizun arinago batera bultzatu ninduen.

— Mendia han zegoen; guk behetik begiratzen genion eta galanta gero! Baina han harutzexego beste erraldoi haundi hartan (Everesten) zirenak esan zigutenez, goitik ikusi eta mukizu bat omen zirudien.


Mukizu edo erraldo, hara gora igo nahi genuen; nahi edo ez dakit beharra bihurtu ez zen ere. Gure asmoa Hego-Ekialdeko espoloi bat hartu eta gero Ipar-Ekialdeko hertzean gora abiatzea zen. Baina lehenengo egun haietan bazirudien bide harek ez zuela han inor zirika aritu nahi eta uneoro elur eta serac jausien orroak entzun zitezkeen alde hartatik.

Beraz plan aldaketa egin beharra zegoen. Katalan gazte batzu Hego-Mendebaleko hertzean ari ziren lanean, bide zilxeagoa baina seguruagoa ere bai. Eguraldia laguntzeko prest agertu zen eta laister ginen elur eta harriarte haietan gora lehenengo zamak jasozten. 5.800 metrotara kanpamendu bat eta egun batez 6.200 metrotara iristea izan ziren saio hartan egindako guztiak. Guri, han segitzekotan arazoakmizan genitzakeenaren abisua iritsi zitzaigun (ez bait genuen bide hartara sartzeko baimenik), eguraldiak arras aldatu zuen eta lagun katalandarrek espedizio egunak bukatzeaz zituztela eta elurraren kondizio kaskarrak bultzaturik, bera egin genuen eta bera egin zuten. Irailaren 23 eta 24a izan behar zuen oker ez banago.

Berriz ere hasierako planari lotuko gintzaiola erabaki genuen. 25ean oraidik elurra ari zuen mara mara, 26an egun polita atera zuen baina malda aldapatsu haietan zintzilik ikus zitezkeen elur pilek, ez zuten gora mu-



**Nuptse behe kanpamendutik.**



◀ **Gailurrera bidean, atzean Lingtren.**

**Katalanarekin behe kanpamenduan.**

gitzeko animorik berotzen, eta azkenean 27an ekin genion lanari.

## Hiru egunetan

5.700 metrotatik gora sokak jartzen hasi ginen, egun hartan lainoak gaineratu zitzaizkigunerako 400m sartu genituelarik. Elurra ez zen guk nahi bezain gogor eta egonkorra baina putz batzu bota eta egin zitezkeen aurrera, eta zailtasuna berriz, heldutako puntu hartaraino behintzat, ez zitzaigun kontatu zigutenaren antzekorik ere iruditu. Bestalde, 1go kanpamendua jartzeko tokia ere hurbil behar zuela izan zirudien. Gauzak horrela, belarritik belarrirako irribarra eraman genuen beheko kanpamendura. Han berriz zai ziren Albert, Ricard eta Ernest, hiru egunen buruan beherako martxa hartu

beharrean baina oraindik ere azkenengo kartutxoak erretzeko amorru bizitan.

Irailaren 28an bost gazteok abiatu ginen gora aldera. Bizkarrean karga gehiegixko baina buruan asmo garbia. Aurreko egunean utzitako sokei heldu eta gauean gogortutako arrastoei segika iritsi ginen sokaren goi muturrera. Handik aurrerakoak lan serioagoa zirudien: arrastoa zabaldu, beherakorako sokak jarri behar eta 20kg baino gehiago bizkarretik atzera tiraka. Baina orain zu eta gero ni, ez zen atzera begira egoteko astirik. Azkenik, elur hertz bati gain hartu eta pausu batzu aurrerago, gain estu hartan, txoko lau txiki bat genekusan. Ernest iritsi zen aurrena eta elur hertzaren gainaldetik begira nengoela bazirudien mutilak burua paradisuan aurkitu zuela edo nik dakit zer: saltoka, pozik, aluzinaturik hitz batean esateko.



**Sokak jartzen**  
(*atzean Nuptse eta Lhothse*).

Denbora egin genuen dendak finkatu eta sakuan goxo goxo sentitu arte eta han ere ezin geldi egon: elurra urtu eta te bat, ontzia elurrez bete eta sopa, hurrengoan purea, eta pazietzia izanez gero beste te bat. Lo kuluxka bat egin eta 12etan dendatik dendarako kuku bat, martxan jarri beharreko seinalea. Ura, tea, eta gainerako dena prest izan orduko goizeko hiruak. Irailaren 29a zen.

Serac jauzien tarte arriskutsua genuen aurrez aurre eta bada ez bada ere hankak arin eta egunsentirako Ipar-Ekialdeko hertza jo genuen. Handik gorakoa teknikoki errezena omen zen, baina indarrak behera eginak genituen eta hurbil zirudien hura urruti ikusten hasi ginen. Halere hortzak estutu eta gora, gora eta gorago, lainopean sartu eta gora, eguerdiko 1.45etan gailurra zapaldu arte. Haize hotza eta lainopean ezer ikusterik ez, baina han ginen, behetik begiratu eta galanta zirudien mukizu hartan. Walkietan Everest aldetik zetozten aupa eta gora ho-

tsak belarriratu zizkiguten eta uste baino lehen behera begira ginen arratsaldea motza eta denda bide luzearen beste muturrean zirelarik.

Irailaren 30ean beheko kanpamenduan geunden, sukaldariaren arroz beroarengandik gertu, te ontzia eskura eta aurpegi la-saiago batekin mendiari begira.

## Egon eta gero

Mendiari xehetasunik aski emana nionean anaion artean haserraldirik izan ote zen edo jakinmina sortu zen.

— Haserretu egunean laupabost aldiz guxtienez bai, eta ez al da normala. Bizitza guztia daramagu horrela eta bi hilabetez egunero sakutik altxa eta aurpegi zimur berekin topatu beharra... Bai batak eta bai besteak edozein aitzaki alu bila zezakeen begirada oker, kopeta ilun edo hitz garratz batzu luzatzeko, baina momentu batez solik, luzera eramanda ere ez bait da ezer konpon-tzen. Gainera bi bakarrik izateak edozein al-daketetara moldatzeko aukera gehiago es-keintzen da, elkar ongi ezagutzen dugunez mendian elkarlana aiseago burutzen dugu,... abantailak aprobetxatu eta gainerakoak ja-san egin behar. Beharbada gehiegi jasaten ez duena poltsikoa da, honek ez bait du mo-ladatzeko aukera gehiegirik eskeitzen; eske-rrak besteak beste FAGOR eta Aretxabaleta-ko udaletxea portatu direna, bestela zati baterako gure planek plan izaten jarraitu be-harko bait lukete.

Planak aipatu zirelarik elkar topatutako le-henengo uneetan pasadizuan joandako gaiari lotzera gonbidatu ninduten: «beno, hau ongi atera bada hurrengo zer; zuek es-kuartearen zer edo zer badakarkizue, ezer esan nahi ez baduzue ere».

Gezurra ibiltzea ez da itxurosoa baina egi borobila bota gabe ere txanda pasoa joatea zilegi delakoan nago. Momentu har-tan mendiak, mendi haundiak zetozkidan gogora, nola ez, beraien aitzakian murgil-tzen gara saltsa guzti hauetan. Baina aurrez ustegabeko beste hamaika toki, jende egoe-ra eta gertakari ere baziren itzultzeko irrikan jartzen nindutenak.

Itzuli? Itzuliko gara bai, datorren urtean ahal bada!

**Sokak jartzen.**

## DATU TEKNIKOAK

### Espediziolariak:

— FELIX IÑURRATEGI eta  
ALBERTO IÑURRATEGI

### Kronologia:

— Kathmandutik irteera: Irailaren 3a  
— Behe kanpamendua: Irailaren 16a  
— Gailurra: Irailaren 29a

### Eskalada bidea:


— Hego-Ekialdeko aurpegia eta Ipar-Ekialde-ko hertza.

**Kanpamendua:** 1 (6.200 metrotara)

**Sokak:** 600 m (5.700 eta 6.200 m bitartean)



Argazkiak: Félix Inurategi.




## RESUMEN

### Pumori 90

**L**EGAMOS a la cima del Pumori (7.161 m) a las 13,45 del 29 de setiembre tras 11 horas de ascenso y trabajo en común con tres amigos catalanes (Ricard, Ernest y Albert), a quienes habíamos conocido 13 días atrás en aquel txoko (Campo Base), a 5.300 m. Tan sólo un día empleamos en preparar la ruta, colocando 400 m de cuerda fija a partir de los 5.700 m. Con todo a costas partimos del Base para terminar de equipar otros 200 m y montar el C-1 (6.200 m) y estar en disposición de hacer cumbre.

El ascenso se realizó por la cara S.E. de la montaña. Tras ganar altura entre piedras a lo largo de un amplio espolón, entramos en pronunciadas pendientes de nieve para subir entre palas y alguna canal hasta la arista de nieve que daba al C-1. A partir de aquí, hasta el collado en la arista N.E. (6.600 m), nos encontramos la parte más comprometida, debido a la caída de seracs (subimos de noche, rápido y con la clara idea de pasar una sola vez). La arista N.E. no presentaba más dificultades que la nieve profunda y el cansancio patente tras la labor realizada hasta ese punto.

Una ruta bonita, factible (aunque algo peligrosa) y sobre todo instructiva para el profano iniciador en las tareas del Himalaya.



**Pumori hego-mendebaldeko hertza.**